

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren ebazpenaren bidez, Blanca Rosa Arrazola Herce anderea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostuari (kodea: 81.002) atxikiko zaio**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoko Administrazio Kontseiluaren jarduneko lehendakariaren ebazpenaren bidez, 2016ko uztailaren 15ean ALHAOn, 80.zenbakian argitaratua, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81.002) izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Ebazpen horretan eskabideak jasotzeko epea hamar egun balioudun zirela ezarri zen, zegokion iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko paragrafoan adierazitako publikazioa, 2016ko uztailaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ( 136.zenbakian) publikatu zen.

Eskabideak jasotzeko epea bukatu da, eskatzaileek azaldutako merezimenduak aztertu ondoren, deialdiaren 5.oinarri-arauaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak 2016ko abuztuaren 3ko idatziaren bidez, Blanca Rosa Arrazola Hercearen izendapen-proposamena egin du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.artikuluak xedatutakoarekin bat etorritz, ondokoa

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Blanca Rosa Arrazola Herce anderea izendatzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoa, kodea: 81.002.

Bigarrena. Ebazpen hau 2016ko abuztuaren 29tik aurrera sartuko da indarrean.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsuotarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116.artikuluarekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 3a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Administrazio-Kontseiluko lehendakaria*  
**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**